

Euskaraz («Arbasoen ituna») eta gaztelaniaz («Ittun»), bi hizkuntzatan batera argitaratu du eleberria Martínez de Lezeak.

Gorka RUBIO | ARGAZKI PRESS



Fantasiatzko lurraldeak arakatzaren jarraitzen du Martínez de Lezeak

Nobela historikotik urundu eta fantasiarako bidea abiatu zuen iaz Toti Martínez de Lezeak «Endalur» eleberriarekin. Euskal mitologia bere galbahetik pasatuta, «idatzia izan ez den histo-

ria» irudikatu zuen idazle gasteiztarrak eta haren jarraipena da kaleratu berri duen «Arbasoen ituna». Zazpi lurralde fantastiko eraikiko ditu, argitalpen banatan. Hauxe du bigarrena.

Amalur ARTOLA | DONOSTIA

Zazpi liburu ditu gogoan Toti Martínez de Lezeak. Eraikiko duen lurralde fantastiko bakoitzeko bat. «Endalur» izan zen lehena, ordura arte bere literaturgintzan oinarri izan zuen nobela historikoaren eredu eleberri fantastikoarekin nahasita osatu zuen lehendabiziko argitalpena. Eta hark irekitako bideari jarraitzen dio bigarrenak, Erein-ekin argitaratu berri duen «Arbasoen ituna»-k: «Badira urte batzuk ideia otu zitzaizkida. Batek, gustuko ditut eleberri fantastikoak eta, gainera, gure mitologia oso aberatsa bada ere ez dago iruditeria komun bat... Mitologia nordikoan, adibidez, Odin eta bere semeen arteko borroak eta abar kontatzen dira, baina gure mitologiako pertsonaien artean ez dago interakzioirik. Horrek eraman ninduen 'Endalur' idaztera», azaldu zuen libururaren aurkezpenean.

Joxemiel Barandiaranek eta beste hainbatek ohitura eta kondairen berreskurapenean egin-

dako lana ohoratu zuen idazle gasteiztarrak, «Elizaren eraginagatik itxuraldatuta iritsi baitzaizkigu. Haiei esker, baserri galdezka ibili zirelako eta ahozko transmisioa idatziz eman zutelako, izenak, ohiturak, usteak iritsi zaizkigu eta nik egin dudana horiei forma ematea izan da».

Denboran, VI. eta VII. mendeen artean kokatu du eleberria, erraldoi, herensuge, Tartalo, jainkosa... eta hainbat etniaz osatutako herrialde batean. «Zazpi lurralde sakratu daude bertan eta, bizi banaiz bederen, horietako bakoitzarekin liburu bat idazteko asmoa dut», zehaztu zuen Martínez de Lezeak.

Endalur iazñ zen lehen «lurralde sakratua». «Eleberrietan agertzen diren paisaia guztiak daude gutxiago edo gehiago errealtatean existitzen den paisaia bati lotuta. 'Endalur' argitaratu nuenean, denek uste izan zuen Anboto zela. Baina ez, Endalur, errealtatean, Orhi mendia da», nabarmendu zuen. Hasiara batean «lurralde

ZAZPI

Zazpi «lurralde sakratu» eta bakoitzari buruzko liburu bat argitaratu nahi ditu Martínez de Lezeak. Orhi mendian oinarritutako Endalur izan zen lehen lurraldea, eta bigarren honetan Aralar hartu du eredu Herensugearen Mendilerroko paisaia irudikatzen.

sakratuen» oinarrian dagoen paisaia ezkatuzeko asmoa bazuen ere, horren inguruan sortu den «ikusmiraren eraginez» paisaia zehazteko erabakia hartu duela esan zuen.

«Bigarren eleberria Herensugearen Mendilerroan kokatu dut. Aralarren bada kondaira ikaragarri polit bat herensuge

batekin, eta hori hartu dut erreferentzia modura, daukagun mitologia aberatsa erabili egin behar delako», esan zuen. Atahaun (Ataun), Ilunia (Iruñea) eta Txindoki mendia dira irakurleak identifikatu ahaliko dituen benetako beste agertokiak batzuk.

Pertsonaiei dagokienez, zehaztu zuen «Endalur»-en agertu zirenetariko bi soilik eraman dituela «Arbasoen ituna»-ra. «Ez zait pertsonaia errepikatzea gustatzen. Eta, gainera, kontaktuzuna lurralde ezberdin batean garatzen denez ez du zentzurik errepikatzea», esan zuen.

Azkenik, azken urteetan egin ohi duen modura, batera argitaratu ditu jatorrizko bertsoia, gaztelaniazko «Ittun», eta euskarazkoa, «Arbasoen ituna» (Miren Arratibel-ek ekarri du euskarara). «Ikaragarri gustatuko litzaidakeen arren ezin dut euskaraz idatzi, baina eleberriak jatorrizko bertsoian eta euskaraz batera argitaratu nahi izaten dut. Durangon biak egon zitezela nahi nuen», esan zuen.

BOS

Bilbao Orkestra Sinfonikoa

Azaroak 30
Abenduak 1



Erreforma,
500 urte

R. Wagner
Parsifal, preludeo

F. Litz
Concierto para piano y orquesta nº 2 en La mayor

F. Mendelssohn
Sinfonia nº 5 en Re mayor "de la Reforma"

Benjamin Grosvenor, pianoa

Erik Nielsen, zuzendaria

Palacio Euskalduna Jauregia

19:30 h.

Desde 13,15€tik aurrera
Gaztea (€ 30): desde 2,25€tik aurrera

www.bilbaoorkestra.eus
www.kutxabank.es

Taqüilla Euskaldunako lehiazila
Cajeros multiservicio Kutxabank
Kutxabank-eko orotarako kutxazainak